

FUNDACIÓN SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOA

2023 EKITALDIKO JARDUERA-PLANA: AURREKONTUA ETA AZALPEN-MEMORIA

Ordizia, 2022ko urriaren 3a

AURKIBIDEA

- 1.- DATU OROKORRAK
- 2.- HARREMANETARAKO PERTSONA
- 3.- 2023ko JARDUERA-PLANA: SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA
- 4.- 2023ko JARDUERA-PLANA: AZALPEN-MEMORIA
 - 4.1.- GASTUEN AURREKONTUA
 - 4.2.- SARREREN AURREKONTUA
 - 4.3.- LABURPENA

1.- DATU OROKORRAK

Erregistro-zenbakia	F-254
Izena	FUNDACIÓN SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOA
Helbidea	UPABI ALDEA, 2
Posta-kodea	20240
Udalerria	ORDIZIA
Lurralde historikoa	GIPUZKOA
IFK	G-75005306
Telefonia	943088050
Posta elektronikoa	sueskola@sueskola.eus
Ordezkaritzak edo egoitzak	EGOITZA SOZIALA

2.- HARREMANETARAKO PERTSONA

Iñigo Aldasoro Música jauna (fundazioko zuzendari orokorra)

3.- 2023ko JARDUERA-PLANA: SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA

KONTU SAILAK	AURREKONTUA	KONTU SAILAK	AURREKONTUA
BETEBEHARRAK		ESKUBIDEAK	
JARDUERA ERAGIKETAK	2023	JARDUERA ERAGIKETAK	2023
1. Erakundearen jardueragatiko gastuak		1. Erakundearen jardueragatiko sarrerak	1.346.841,54
a) Dirulaguntza		a) Ikastaroen kuotak	577.492,04
b) Laguntzengatiko gastuak eta Patronatuaren gastuak		b) Sustapen, babes eta laguntzengatiko sarrerak	88.004,05
2. Ustiapen kontsumoak	749.989,39	c) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	681.345,45
3. Langileen gastuak	93.856,24	2. Salmentak eta beste sarrera arrunt batzuk	
4. Ibilgetuaren amortizazioetarako zuzkidurak	500.470,91	3. Beste sarrera batzuk	
5. Beste gastu batzuk		4. Finantza sarrerak	0,00
6. Jardueraren hornidura aldea eta kobratu ezineko kredituen galerak		5. Aparteko sarrerak	
7. Finantza gastuak eta pareko gastuak	2.525,00		
8. Aparteko gastuak			
9. Sozietateen gaineko zerga			
JARDUERA ERAGIKETENGATIKO GASTUEN GUZTIZKOA	1.346.841,54	JARDUERA ERAGIKETENGATIKO SARREREN GUZTIZKOA	1.346.841,54
FUNTS ERAGIKETAK	2023	FUNTS ERAGIKETAK	2023
1. Kapital-subentzioen murrizteak	64.986,40	1. Sortzaile eta kideen ekarpenak	
2. Ibilgetuaren gehikuntza		2. Kapital-subentzioen gehikuntza	
a) Hastapen gastuak eta zorren formalizazio gastuak		3. Ibilgetuaren murrizteak	68.856,24
b) Ondare Historikoko ondasunak		a) Hastapen gastuak eta zorren formalizazio gastuak	
c) Ibilgetu materialak		b) Ondare Historikoko ondasunak	
d) Ibilgetu ez-materialak		c) Ibilgetu materiala	2.742,84
3. Izakinen gehikuntza		d) Ibilgetu ez-materiala	66.113,40
4. Finantza inbertsioen gehikuntza		4. Izakinen murrizteak	
5. Altxortegiko gehikuntza		5. Finantza inbertsioen murrizteak	
6. Jarduerako kapitalaren gehikuntza	2.896,06	6. Altxortegiko murrizteak	6.246,20
7. Arrisku eta gastuetarako hornidura gehikuntza		7. Jarduerako kapitalaren murrizteak	
8. Zorren murrizteak	7.219,98	8. Arrisku eta gastuetarako hornidura gehikuntza	
		9. Zor gehikuntza	
FUNTS ERAGIKETENGATIKO GASTUEN GUZTIZKOA	75.102,44	FUNTS ERAGIKETENGATIKO SARREREN GUZTIZKOA	75.102,44
AURREKONTUKO GASTUEN GUZTIZKOA	1.421.943,98€	AURREKONTUKO SARREREN GUZTIZKOA	1.421.943,98€

4.- 2023ko JARDUERA-PLANA: AZALPEN-MEMORIA

4.1.- GASTUEN AURREKONTUA

4.1.1.- JARDUERA-ERAGIKETAK

3. LANGILEEN GASTUAK

Soldatak, enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren eta beste gastu sozial batzuk hartzen ditu barne. Gaur egun, fundazioaren egiturako lanpostuak 12 dira: zuzendari bat, administrari bat, mantentze-lanetako arduradun bat, mantentze-lanetako teknikari bat, laguntzaile bat, ikasketa buru bat eta sei formatzaile.

Atal honetan, iazkoaren aldean ematen den gehikuntza, 2023 urterako aurreikusten den % 3,5-eko soldata igoera eta aintzinasunez dagokie.

Soldatak	580.542,71
Enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren	166.299,13
Beste gastu sozial batzuk GEROA	1.097,55
Langileen prestakuntza	2.050,00

Langileen gastuen guztizkoa: 749.989,39€

Aurreko taulan azaldutako langileen gastuetan sartuta dauden **88.706,59** euro langile kudeatzaileen gastuei dagozkie: hau da, administrazio-gastuetan jo behar dira; eta aurrerago azalduko diren profesional independenteen ataleko **8.080,57** euro ere bai.

Orotara, beraz, **2023 urtean administrazio-gastuak 96.787,16** euro izango dira.

4. IBILGETUAREN AMORTIZAZIOETARAKO ZUZKIDURAK

Ibilgetu material eta ez-materialeko elementuen benetako balio-galera islatzen du.

Ibilgetuaren amortizazio gastuetan sartu da Gipuzkoako Foru Aldundiarena den Ordiziako eraikinaren gaineko emakida administratiboa izateak eragindakoa: 25 urtetako emakida dela kontuan hartuta, eraikinaren balioa zati 25 eginda ateratzen dena. Urtean 66.000 euro, gutxi gorabehera.

Ibilgetuaren amortizazioetarako zuzkiduren guztizkoa: 93.856,24€

5. BESTE GASTU BATZUK

a) Errentamenduak eta kanonak

Jarduerari lotutako ondasunen errentamendu gastuak dira, hala nola: inprimagailua, ibilgailuak, etab.

Errentamendu eta kanonen guztizkoa: **6.480,00€**

b) Konponketak eta mantentze-lanak

Jarduerari lotutako ondasunak erabiltzeko egoera onean mantentzeko egiten diren gastuak dira.

Konponketen eta mantentze-lanen guztizkoa: **50.395,66€**

c) Profesional independenteen zerbitzuak

Erakundeari emandako zerbitzuengatik —esate baterako: aholkularitza edo auditoretza, formatzaile laguntzaileak— profesionalei ordainduko zaizkien zenbatekoak dira.

Profesional independenteen zerbitzuen guztizkoa: **19.597,09 €**. Horietatik **8.080,57** euro administrazio-gastutzat jo behar dira.

d) Garraioak

Garraio eta mezulari enpresei dagozkien gastuen zenbatekoa da. Garraioen guztizkoa: **300,00€**

e) Aseguru-primak

Jarduera, istripu eta bizitza, eta erantzukizun zibileko aseguru-prima kontzeptu gisa ordainduko diren zenbatekoak.

Aseguru-primen guztizkoa: **11.401,69€**

f) Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak

Kontuan adierazten diren kontzeptuengatik egingo diren gastuen zenbatekoak. Publizitate, propaganda eta harreman publikoen guztizkoa: **300,00€**

g) Hornidurak

Biltegi batean gordetzekoa ez den edozein hornidura. Gas-, argi- eta ur-hornidurengatik gastuak hartzen ditu barne.

Horniduren guztizkoa: **75.852,00€**

h) Beste zerbitzu batzuk

Orain arte aipatutako kontuetan sartzen ez diren zerbitzuak.

Beste zerbitzu batzuen guztizkoa: **297.053,94€**

i) Zeharkako zergen doikuntza negatiboak

Kengarri ez diren zergei dagokien zenbatekoa (BEZaren hainbanakoa)

Zeharkako zergen doikuntzaren guztizkoa: **38.487,89€**

j) Beste zergak

Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga: **602,64€**

Beste gastu batzuen guztizkoa: 500.470,91€

7. FINANTZA GASTUAK ETA PAREKOAK

Fundazioaren kontu korronteez eta kreditu kontuek 2023 ekitaldian sortuko dituzten gastuak.

Finantza-gastuen guztizkoa: 2.525,00€

JARDUERA ERAGIKETENGATIKO GASTUEN GUZTIZKOA: 1.346.841,54 €

4.1.2.- FUNTS ERAGIKETAK

1. KAPITAL-SUBENTZIOEN MURRIZTEAK

2022ko abenduaren 31ko eta 2023ko abenduaren 31ko saldoen arteko aldea, kapital-subentzioen atalari dagokionez.

Kapital-subentzioen guztizko murrizteak: 64.986,40€

6. JARDUERA KO KAPITALAREN GEHIKUNTZA

2022ko abenduaren 31ko eta 2023ko abenduaren 31ko saldoen arteko aldea, jarduerako kapitalaren murrizteen atalari (balantzeko 4. taldeko eskubide eta obligazioak) dagokionez.

Jarduerako kapitalaren gehikuntzen guztizkoa: 2.896,06€

8. ZORREN MURRIZTEAK

2022ko abenduaren 31ko eta 2023ko abenduaren 31ko saldoen arteko aldea, ordaindu beharreko zorrei dagokienez.

Zorren guztizko murrizteak: 7.219,98€

FUNTS ERAGIKETENGATIKO GASTUEN GUZTIZKOA: 75.102,44 €

AURREKONTUKO GASTUEN GUZTIZKOA: 1.421.943,98€

4.2.- SARREREN AURREKONTUA

4.2.1.- JARDUERA ERAGIKETAK

1. ERAKUNDEAREN JARDUERAGATIKO SARRERAK

a) Ikastaroen kuotak

Fundazioak bere bezeroei emandako ikastaroengatik fakturatuko dien zenbatekoa hartzen du barne.

Estatutuetan (3. artikuluan) jasotakoaren arabera, fundazioaren xede nagusia da Gipuzkoako Lurralde Historikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde-eremu batzuetan suteen prebentzio eta itzaltze arloan nahiz larrialdiko beste arlo osagarri batzuetan trebakuntzarako eta prestakuntzarako baliabide iraunkorrak jartzea; eta, xede hori betetze aldera, aipatu arloetako ikastaroak ematea da fundazioaren jardura behinena.

Horiek horrela, 2023an SUESKOLAK 4.000 ikasle ingururi emango die prestakuntza. Guztizko zenbateko horrek enpresetako langileak eta Suhiltzaile zerbitzuetako nahiz larrialdi-zerbitzuetako eta babes zibileko profesionalak hartzen ditu bere barne.

Jardura eragiketengatiko sarreraren %40 baino apur bat gehiago ikastaroen bidez lortzen du fundazioak.

Ikastaroen kuoten guztizkoa: **577.492,04€**

b) Sustapen, babes eta laguntzengatiko sarrerak

Laguntzaile eta babesle publizitarioen eskutik fundazioak jasoko dituen zenbatekoak.

Erakunde, entitate eta enpresa ezberdinekin sinaturiko lankidetzaz hitzarmenak direla eta jasotzea espero dugun ekarpenak sartzen dira atal honetan. Dirutan edo jenerotan izan daitezkeen ekarpenak dira: laguntzaileek (BIDELAN SA, CAF SA eta ORKLI SCoop.) edota babesleek (Lavandería LIZARRA SL, BABESA SUZAI SA eta Productos MESA) eginiko ekarpenak.

Kontu honetan, aurreko urteko aurrekontuan zeuden diru-sarrera berberei eustea aurreikusi da, laguntzaileen atalean.

Sustapen, babes eta laguntzengatiko sarreraren guztizkoa: **88.004,05€**

c) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Gipuzkoako Foru Aldundiak fundazioari egin ohi dion ekarpen ekonomikoa, ARKAUTE Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin sinatu lankidetzahitzarmenaren baitan jasotakoa eta HOBETUZ Langileen prestakuntzarako Euskal Fundazioaren eta FUNDAE langileen prestakuntzarako estatuko fundazioaren programen baitan lortzea espero diren dirulaguntzak hartzen ditu barne kontu honek; baita urteko galera-irabazietara transferitutako zenbatekoak ere.

Fundazioaren sortzaile den aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak fundazioaren jardura arrunterako egiten duen ekarpenari dagokionez, 160.000 eurokoa jaso da; hau da, 2022an bezala. Horrez gain, kontuan hartu behar da ezen Foru Aldundiak 25.000 euro gehiago jartzen dituela inbertsioetarako eta hori zuzenean balantzera doala.

Era berean, ARKAUTE Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren baitan, polizia, suhiltzaile eta babes zibileko bolondresak trebatu eta autobabes kultura indartzeko helburuarekin gutxi gora behera 425.000 euroko diru-ekarpena jasotzea aurreikusten da.

HOBETUZ Langileen prestakuntzarako Euskal Fundazioaren programaren barruan, berriz, azken urteetako joera kontuan hartuta, barne prestakuntzarako dirulaguntza aurreikusi da bakarrik: 4.054,72 euro.

Bukatzeko, FUNDAE langileen prestakuntzarako estatuko fundazioaren programatik 2.535,26 euro jasotzea espero da.

Dirulaguntzen, dohaintzen eta legatuen guztizkoa: **681.345,45€**

Erakundearen jardueragatiko sarreraren guztizkoa: 1.346.841,54€

4. FINANTZA SARRERAK

Finantza erakundeetan fundazioak dituen kontuetako interesak.

Finantza-sarreraren guztizkoa: 0,00€

JARDUERA-ERAGIKETENGATIKO SARREREN GUZTIZKOA: 1.346.841,54 €

4.2.2.- FUNTS ERAGIKETAK

3. IBILGETUAREN MURRIZTEAK

Epe luzera erakundearen jarduera gauzatzeko behar diren ondasun-elementuak hartzen ditu barne.

c) Ibilgetu materialak

Ibilgetu materialen gaineko eskubideetan eginiko inbertsioen balioa jasotzen da. Ibilgetu materialaren guztizkoa: **2.742,84€**

d) Ibilgetu ez-materialak

Ibilgetu ez-materialen gaineko eskubideetan eginiko inbertsioen balioa jasotzen da. Ibilgetu ez-materialaren guztizkoa: **66.113,40€**

Ibilgetuaren murriztearen guztizkoa: 68.856,24€

5. ALTORTEGIKO MURRIZKETA

2022ko abenduaren 31ko eta 2023ko abenduaren 31ko saldoen arteko aldea.

Altxortegiko murrizteen guztizkoa: 6.247,20€

FUNTS ERAGIKETENGATIKO SARREREN GUZTIZKOA: 75.102,44€

AURREKONTUKO SARREREN GUZTIZKOA: 1.421.943,98€

4.3.- LABURPENA

Oro har, 2022ko eta 2023ko aurrekontuen artean 52.000,00 euro inguruko aldea dago: % 4,00ko igoera aurreko urtearekin alderatuta.

- Diru-sarreraren atalean, azpimarratu behar da igo egin dela ikastaroengatik fakturazioa, bai eta ARKAUTE Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenetik eratorritako diru-sarrerak ere, eta egonkor mantendu direla babes eta lankidetzengatik diru-sarrerak.
- Gastuen atalean, aipatu behar da hornidura gastuek gora egin dutela elektrizitatearen eta gasaren prezioa igo delako, eta prestakuntza-jardueraren maila handiagoagatik aurrekontuan sartutako beste gastu batzuek ere gora egin dutelako.